

AZTERKETAK | 50

2023ko AZAROA

**Eusko Jaurlaritzaren 2024rako
aurrekontuen azterketa:
kontinuismoa
mobilizazio sozialeko
egoera batean**

Eusko Jaurlarutzako 2024rako aurrekontuen azterketa: kontinuumoa mobilizazio sozialeko egoera batean

1. SARRERA.....	3
2. 2022ko AURREKONTU-POLITIKAREN AZTERKETA.....	4
3. 2023ko AURREKONTU-POLITIKAREN AZTERKETA.....	6
4. 2024RAKO AURREKONTU-PROIEKTUAREN BALORAZIOA.....	7
4.1. Arau fiskalek diru-sarreraren aurrekontuari eragiten diote.....	7
4.2. Aurrekontuak ekonomiaren gainean duen pisua jaitsi egiten da.....	9
4.3. Osasun-arazoei aurre egiten ez dien aurrekontua.....	12
4.4. Lege berria, baina hezkuntzarako baliabide berberak.....	13
4.5. Osasunean eta hezkuntzan egindako inbertsio eskasa, EBrekin alderatuta.....	14
4.6. Etxebizitzarako inbertsio eskasa.....	15
4.7. Betikotu egiten dira gizarte-prestazioen murrizketak.....	16
4.8. Zorra eta zor bizia.....	17
4.9. BEM funtsek ez dute aldaketa esanguratsurik eragiten.....	18
4.10. Ez dago norabide aldaketarik larrialdi klimatikoari dagokionez.....	19
4.11. Laneko segurtasun eta osasunak lehentasun izan gabe jarraitzen du.....	19
4.12. Beste gai batzuk.....	20
5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK.....	20

1. SARRERA

Eusko Jurlaritzaren 2024rako aurrekontu-proiektua ziurgabetasun-egoera batean aurkezten da, bai nazioartean, bai gure lurraldean. Pobretze-prozesu batetik gatoz, non inflazio handia, eta bereziki elikagaien prezioen gorakada eta hipoteken garestitzea, izugarri zailtzen ari da familia asko hilaren amaierara iristea. Gainera, inflazioari aurre egiteko hartutako neurriek (bereziki interes-tasen igoerek) ekonomiaren ahultzea eragin dute, horren adierazle dira hazkunde ekonomikoaren geldotzea eta desazelerazioaren ondorio negatiboak nabaritzen hasi den industria-sektorea.

Egoera soziala eta sektore publikoaren egoera ere ez dira positiboak. Gogora dezagun pandemiak agerian utzi zuela osasun publikoaren baliabide falta, 2008ko krisiaz geroztik sektore publikoak jasan dituen murrizketengatik datorrena. Hiru urteren ondoren, egoerak ez du hobera egin, eta itxaron-zerrenda luzeei gehitu behar zaie zerbitzu mediko asko etengabe bideratzen direla osasun pribatura, osasuna pribatizatzeo estrategia argian. 2024rako aurrekontuak aukera bat dira partida horiek handitzeko, legegintzaldiko azken aurrekontuak baitira. Hala ere, txostenean ikusiko dugunez, ez da horrela izan.

Sektore publikoko langileen baldintzei dagokienez ere, lan-baldintzen murrizketa nabaria da baita. Euskal sektore publikoaren behin-behinekotasuna ia %50era iristen da, sektore pribatuarena baino hiru aldiz handiagoa. Gainera, sektore publikoko plantillaren erosahalmen-galera metatua %20koa da, batez ere lan-baldintzei buruzko erabakiak Madrilen hartu direlako, EAEn hartu ordez, Eusko Jurlaritzaren isileko onespenearekin, zeinak txintik esan gabe onartu baititu. Arrazoi horiengatik eta beste askorengatik (lan-karga handiak, ratio altuak, lanpostuen finkatze falta, etab.), euskal sektore publikoa joan den urriaren 25ean grebara joan zen eta datorren abenduaren 19an egingo du berriro, zerbitzu publiko indartsu, doako, kalitatezko eta lan-baldintza onak eskuratzeko. Aurrekontuak dira hori posible egiteko tresna.

Aipatzekoa da gaur egun arau fiskalen erreforma eztabaidatzen ari dela, eta horrek eragina izango duela datozen urteetako aurrekontuetan. Hori 2024ko aurrekontua handitzeko beste arrazoi bat da, aurreko urteetako norabidea aldatu eta zailtasunak dituzten pertsona guztiei lagundu eta kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko.

Txosten honetan 2022, 2023 eta 2024ko aurrekontu-politikak jorratuko dira. 2022rako aurrekontuaren likidazioa daukagu, eta, beraz, zehatz-mehatz ezagutzen dugu urteko benetako gastua eta diru-sarrera. 2023rako, itxiera aurreikuspena dugu, eta 2024rako, Ekonomia eta Ogasun Sailak aurkeztutako proiektuaren balorazioa egingo dugu.

2. 2022KO AURREKONTU-POLITIKAREN AZTERKETA

4. or.

2023ko aurrekontu-proiektuaren azterketan, Eusko Jaurlaritzak egindako 2022ko aurrekontu-politikaren balorazioa egin genuen. Bertan, urtean zehar izan genuen propaganda seinalatu eta salatu genuen. Gainera, gogoratu behar da Eusko Jaurlaritzak bere aukeren oso azpitik gastatu zuela 2020an eta 2021ean. Pandemiaren ondorioz gizarte-premiekin nabarmen gora egin duten arren, hasierako aurrekontuarekiko gastua ez zen handitu 2020an, eta %1,4 baino ez zen hazi 2021ean.

2022ko analisia Eusko Jaurlaritzak urtero argitaratzen duen ixiera-aurreikuspenarekin egin zen. Ohi bezala, aurreikuspen hori interesatua da, eta ez dator beti errealitatearekin bat. Orain, ordea, 2022ko aurrekontuaren likidazioa daukagu, behin betikoa, eta, beraz, jakin dezakegu zein izan zen administrazio orokorraren benetako gastua eta benetako diru-sarrerera.

Aipatu behar da, iaz adierazi genuen bezala, proiektuak Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren (BEM) Europako funtsak txertatzen dituela aurrekontuan, Next Generation EU (NGEU) paketearen barruan. Funtsen erregelamenduak ezartzen duenez, ez dira erabili behar aurrekontu arrunta estaltzeko, aurrekontuaz gain inbertsio gehigarriak egiteko baizik (gehigarritasun-printzipioa). Horregatik kendu egin beharko lirateke diru-sarreraren eta gastuen partidetatik.

Sarrerak

2022. urtea 13.405 milioi euroko diru-sarrerekin itxi zen, aurrekontuan aurreikusitakoa baino %2,3 gehiago.

Foru Aldundien ekarpenak aurrekontuaren zatirik handiena dira, zerga itunduak biltzeaz arduratzen baitira. Guztira 11.599 milioi euro bildu zituzten, eta horrek %5,4ko igoera ekarri zuen (595 milioi euro) hasierako aurrekontuaren proiektuarekin alderatuta. Espainiako sektore publikoan egindako transferentziek ere aurrekontuan jasotakoa baino askoz gehiago ekarri zuten; zehazki, 340 milioi transferitu ziren (257 milioi gehiago). Bestalde, EBrekiko finantza-harremanak 53 milioi gehiago izan ziren, 312 milioira iritsiz. Horretaz gain, 371 milioi euro ere barneratu ziren BEM funts gisa, aurrekontu proiektuan ez zeudenak hasiera batean.

Diru-sarreraren gehikuntza hori ez zen gastura bideratu, Eusko Jaurlaritzak zorraren jaulkipena murriztea erabaki zuen. Aurrekontuen likidazioaren arabera, guztira 497 milioi euro bideratu ziren diru-sarreretara, eta ez 1.429 milioi euro. Hau da, aurreikusitako zenbatekoaren ia herena.

Gastuak

Gastuaren likidazioari dagokionez, 2022ko aurrekontu-proiektuak 13.107 milioi euroko gastua zuen guztira. Baina, azken gastua 13.722 milioikoa izan zen, hau da, aurreikusita zegoena baino %4,7 gehiago. Zenbateko horretan sartzen dira AHT, zorra eta BEMaren gastuak, 1.255 milioi. Beraz, horiek kenduta, gastua %2,8 baino ez zen handitu.

2021eko likidazioarekin alderatuta, aurrekontuaren hazkundea %6koa izan zen.

Gerakina

Ondorioz, aurrekontu arruntaren emaitzak 317 milioi euroko saldo negatiboa izan zuen:

$$13.405 - 13.722 = - 317 \text{ milioi euro}$$

Emaitza negatibo hori, batez ere, zorraren jaulkipenaren gutxitzeak azaltzen du, aurrekontukoa baino ia 1.000 milioi euro gutxiago jaulki baitzen. Esan behar da ez dela negatiboa zor publikoa murriztea, baina ohiko bihurtu da azken urteotan gastuan austeritate-politika bat aplikatzea eta ekitaldiaren amaieran aurrekontuan jasotakoa baino askoz zor gutxiago jaulkitzea, zenbateko horren zati bat gastu soziala handitzera bideratu beharrean. Hau da, 1.000 milioi horietatik zati handi bat hezkuntza edo osasuna bezalako partidak handitzera bidera zitekeen.

Aurreko ekitaldietako emaitzak murriztuz (-2 milioi), aurrekontu-defizita 319 milioikoa izan zen 2022an. Aurreko urteetako superabitagatik, 2021eko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakinean 2.280 milioi euroko saldoa zegoen.

Aurrekontuaren emaitza (-319 milioi) eta eragindako diruzaintzako gerakin eta kobrantza zalan-tzagarriko eskubide gisa 480 milioi kendu ondoren, 2022ko abenduaren 31n erabilgarri zegoen diruzaintzako gerakina 1.480 milioi eurokoa izan zen.

Emaitzaren kontua eta gerakina 2022an (milioi eurotan)

Diru-sarrerak

Proiektua	13.107
Likidazioa	13.404

Diru-sarrerak	13.404
Gastuak	13.721

Gastuak

Proiektua	13.107
Likidazioa	13.721

Defizita
317 milioi

Defizita	+	Aurreko urteetako emaitzak	+	Kobratzeko zalantzazko eskubideak	=	799 milioi
317 milioi		2 milioi		480 milioi		

Gerakina 2021	-	799 milioi	=	Gerakina 2022
2.280 milioi				1.480 milioi



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda EAEko Ekonomia eta Ogasun sailetik

3. 2023KO AURREKONTU-POLITIKAREN AZTERKETA

6. or.

Aurtengo aurrekontu-politika baloratzeko, Ekonomia eta Ogasun Sailak egindako itxiera-aurreikuspena dugu. Lehen adierazi dugun bezala, behin-behineko zifrak dira, eta aldatu egin ohi dira azken likidazioarekin alderatuta.

Sarrerak

Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrerak aurrekontu-proiektuan aurreikusitakoak baino txikiagoak izatea aurreikusten da. Arrazoa da, aurreko urteetan bezala, aurrekontuan aurreikusitakoa baino zor gutxiago jaulkiko dela. 14.251 milioi zenbatu ziren proiektuan. Baina, Jaurlaritzaren aurreikuspenen arabera, zifra 13.792 milioi eurokoa izango da, hau da, 458 milioi gutxiago (-%3,2).

Foru Aldundiek egindako ekarpenei dagokionez, horiek dira aurrekontuan pisu handiena dutenak (%87), aurrekontuan jasotakoarekin alderatuta 97 milioiko igoera aurreikusten da. Aldundien ekarpenen igoerarekin batera, hazi egingo dira Estatu espainiarreko sektore publikoarekiko finantza-harremanen zenbatekoak, 83 milioitik 280ra. Europar Batasunarekiko finantza-harremanen zenbatekoei dagokienez, 93 milioitik 159ra igotzea espero da. Ondorioz, erakundeen baliabideak eta konpromisoak 295 milioi euro gehiago izango dira eta 12.605 milioi eurora iritsiko dira.

Diru-sarreraren igoeraren eta kredituaren garestitzearen aurrean, Eusko Jaurlaritzak, 2022an bezala, ez du aurrekontuan zuen zor guztia jaulki behar izan. Iaz ohartarazi genuen jaulki nahi zen zorraren zenbatekoa oso handia zela, eta horregatik azkenean aurrekontuan aurreikusitakoa baino 500 milioi gutxiago jaulkiko dira, 1.197 milioitik 700 milioira jaitsiz. Esan bezala, horrek diru-sarrerak murriztea eragin du, aurreikusita zegoenarekin alderatuta.

Aurrekontu-proiektuko diru-sarreraren taula eta 2023ko itxiera-aurreikuspena (milioi €)

	2023 (proiektua)	2023 (itxiera aur.)	Aldakuntza
Erakundeen baliabideak eta konpromisoak	12.308	12.605	+297 (%2,3)
Foru Aldundiak			
Est.Espainiarreko sektore publikoaren harremanak	315	447	+132 (+%41)
EBrekin finantza harremanak	93	159	66 (+%70)
Besteak	745	487	-258 (-%34)
Zor publikoa	1.197	700	-497 (-%41)
GUZTIRA	14.250	13.792	-458 (-%3,2)

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu proiektua 2024

Gastuak

2023ko aurrekontuaren gastuaren exekuzioari dagokionez, ikusten dugu gastuaren aurreikuspena aurrekontuan aurreikusitakoa baino handiagoa dela. Proiektuak 14.251 milioi euroko guztizko gastua jasotzen zuen, eta aurreikusitako itxiera-zifra 14.553 milioikoa da; horrek esan nahi du aurrekontuan aurreikusitakoa baino 302 milioi gehiago gastatuko direla (+%2,1). AHTra, zorrera eta BEMra bideratutako partidak kenduta, hazkundea %3,6koa izango litzateke.

Sekzioen araberako azterketari dagokionez, osasungintzara bideratutako partidak %3,6 igo dira, eta hezkuntzara bideratutakoak %1,9 gehiago baino ez dira bideratuko. Hala ere, berdintasunean, justizian eta gizarte-politikan, zenbatekoak %4,1 murriztuko dira.

Saldoa

2023ko itxiera-aurreikuspenak eskaintzen dituen datuekin, zorraren jaulkipenik gabe, Eusko Jaurlaritzak %10,04ko defizitarekin amaituko luke urtea (1.461 milioi euro). Zorra jaulkita, urtea %5,23ko defizitarekin itxiko du (761 milioi). Hori ez litzateke gertatuko diru-sarrerak handitzea ahalbidetuko lukeen zerga-erreforma justu bat egingo balitz, aurrerago adieraziko dugun bezala.

4. 2024RAKO AURREKONTU-PROIEKTUAREN BALORAZIOA

Aurrekontuen proiektuak aurreko urteetako mantrak errepikatzen ditu, oraingoan lau zutabe nagusitan oinarrituz: pertsonak, planeta, oparotasuna eta autogobernua. Hitz handi horiek izaera propagandistiko argia dute proiektu kontinuitate baterako, bai diru-sarreraren zatian, bai gastuen zatian.

Aurrekontu hori, gainera, Europako zerga-arauak 2024an indarrean egongo diren une batean iristen da, eta, beraz, Estatu espaniarrak (eta, beraz, EAEk) bete behar izan ez dituen defizit publikoaren mugak aurrekontu-politikan sartuko dira berriro. Hau da, Europar Batasuna 2008ko krisiaren ondorengo austeritate-politiketara itzuliko da, eta horrek eragin zuzena izango du EAEko aurrekontuetan. Dagoeneko badira ondorio batzuk 2024ko aurrekontuan. Adibidez, defizitaren erreferentzia-tasa %0,3 da, aurreko urteen erdia. Oraingoan, zerga-bilketa (batez ere langile-klaseak sostengatua) espero zena baino handiagoa izaten ari da eta horrek aurrekontuaren handitzea ahalbidetzen du, baina gastu-arau horiek murrizketak ekarriko dituzte etorkizuneko aurrekontuetan.

4.1. Arau fiskalek diru-sarreraren aurrekontuari eragiten diote


Eusko Jaurlaritzak bere posizioarekin jarraitzen du diru-sarreraren politikari dagokionez. Ikusi dugu aurreko urteetan zorpetzea nahiago izan zuela zorpetu zerga-erreforma egitea baino, non kapitalak eta errenta handiek ekarpen handiagoa egingo zuten. Aberastasun Handien gaineko Zergaren inguruan duela gutxi gertatutakoa (Estatuan onartua izan dena) aberatsek gutxiago ordaintzera bideratutako zerga-politikaren beste adibide bat da. 2024rako aurrekontua ere ildo beretik doa, energia- eta banku-erakundearen gaineko behin-behineko zergaren 119 milioi sartu diren arren (zerga horren aurka agertu zen Eusko Jaurlaritzak, eta Estatu espainiarreko gobernuak kudeatu eta transferitu du). Diru-sarrerak handituko dituen erreformarik ez da planteatzen, eta berriz ere zorra jaulkitzera jotzen du diru-sarreraren zati handi bat lortzeko.

Politika horrek, behin baino gehiagotan adierazi dugun bezala, aparteko prezioa dakarkio diru-kutxa publikoari, zorrak sortzen dituen interesen ordainketagatik, are gehiago interes-tasa altuko garai batean.

Eusko Jaurlaritzaren 2024rako aurrekontuko diru-sarrerak 15.025 milioi euroraino igo dira, 2023ko itxiera-aurreikuspena baino 1.233 milioi gehiago (+%9). Guztizko zenbatekotik, %84 foru-aldundien ekarpenetatik dator, 12.686 milioi guztira, eta %5,7 hazi dira itxiera-aurreikuspenarekiko, hau da, 689 milioi gehiago. Ez dezagun ahaztu ekarpen hori, neurri handi batean, lan-atxikipenengatik PFEZtik eta BEZetik datorrela. Hau da, langile-klasea da aurrekontu horri ekarpen handiena egiten diona. Beste baliabide instituzional batzuen partida %24,2 handitu da aurreko urtearekin alderatuta (147 milioi gehiago), 754 milioi guztira; horietatik 124 Europako kohesio-funtsetatik datoz eta 630 milioi Estatuaren transferentzietatik (84 milioi BEMtik, 200 BGDStik eta 189 AHTtik, besteak beste).

Eusko Jaurlaritzak aurrekontuan zor gutxiago jaulkitzea erabaki du, 837 milioi guztira, azken legegintzaldiko aurrekontuetan baino askoz gutxiago (2.552 milioi 2021ean, 1.429 2022an eta 1.197 2023an). Zorraren jaulkipen txikiago hori konpentsatzeko, aurreko ekitaldietako soberakina erabiltzea erabaki du exekutiboak, 597 milioi euro guztira.

Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrerak 2023an (%)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda EAEko Ekonomia eta Ogasun sailetik

4.2. Aurrekontuak ekonomiaren gainean duen pisua jaitsi egiten da

Beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzak inoizko aurrekonturik handienaz hitz egiten duenean proiektatzen duen propaganda kontu handiz hartzea. Marketin-ariketa bat da. Ahalegina egin da aurrekontuak 15.000 milioi euroko kopurua igarotzea, baina ikusten badugu zenbateko horrek ekonomia osoaren gainean suposatzen duena begiratuta, ikus daiteke aurrekontuaren pisuak behera egin duela.

Guztira 15.025 milioi euroko aurrekontua egin da. Ohikoa da Eusko Jaurlaritzak aurrekontua aurreko urteko aurrekontuarekin alderatzea, eta ez itxiera aurreikuspenarekin. Horregatik iragarri dute aurrekontua %5,4 goko dela. Baina aurrekontua 2023ko itxiera-aurreikuspenarekin alderatuz gero, igoera %3,2koa da (472 milioi inguru), ez %5,4koa.

Gainera, guztizko zenbatekoari hainbat partida kendu behar zaizkio, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu operatiboa ezagutzeko, hau da, benetako ahalmen ekonomikoa ezagutzeko. Kontzeptu hauek kendu behar zaizkio:

- Batetik, zorra ordaintzeko partida (861 milioi euro).
- Bestetik, obrak aurreratzeari dagozkionak, horien gastua Estatu espainiarreko Gobernuak itzuliko ditu etorkizunean (189 milioi AHTrako eta Hegoaldeko Trenbide Saihesbiderako).

Partida horiek kenduta, Jaurlaritzak 13.975 milioi euroko aurrekontu operatiboa izango du bere sailletarako, 2023ko itxierako aurrekontua baino 453 milioi gehiago, hau da, %3,4ko igoera. Garrantzitsua da kopuru horiek ezagutzea, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua diotena baino dexente gutxiago handitu baita.


- Gainera, aurrekontuari BEMaren funtsak ere kendu beharko litzaizkioke (341 milioi euro).

Beraz, aurrekontua 13.643 eurotan geratuko litzateke (+%2,7).

EAEko aurrekontua, sailen arabera, 2024rako

10. or.

Aurrekontua 2024: 15.025 milioi euro



Zorra 861 M€

AHT 189 M€


BEM 341 M€

Aurrekontu operatiboa 2024: 13.634 milioi euro

Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda EAEko Ekonomia eta Ogasun sailetik

Aurrekontuak historiako hedakorrenak direla dioen mitoa desmuntatzeko beste modu bat ekonomian duten pisuarekin alderatzea da. Logikoa da aurrekontuak urteek aurrera egin ahala handitzea, BPG edo beste aldagai ekonomikoak ere handitzen diren moduan. Aurrekontu bat benetan hedakorra izan dadin, gastu publikoaren eta BPGaren arteko proportzioa handitu egin beharko litzateke. Hala ere, hurrengo grafikoan ikus dezakegun bezala, hori ez da horrela; AHTrik eta zorrik gabeko 2024ko aurrekontuaren pisua (BPGaren %14,3) 2023ko itxiera-aurreikuspena (%14,6) baino txikiagoa da, eta 2021ekoaren (%15,1) eta 2022koaren (%14,5) aldean ere murriztu egiten da; ere 2009ko (%15,6) mailaren azpitik dago. Kontuan izan behar da 2020an sortutako ratio horren igoera, hein handi batean, BPGren jaitsieraren ondorioz gertatu zela.

Aurrekontuak BPGan duen pisuaren bilakaera (%)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda EAEko Ekonomia eta Ogasun sailetik

Halaber, aurrekontuaren %76 gastu sozialera bideratuko dela esaten da (hamarren bat jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta). Azaldu beharra dago Eusko Jaurlaritzaren eskumen gehienak horretara bideratuta daudela, gizarte-gastura, hain zuzen ere. Horregatik, normala da aurrekontuaren zatirik handiena osasungintzara, hezkuntzara, gizarte-prestazioetara eta abarretara bideratzea.

Eusko Jaurlaritzak propaganda handia egiten du inbertsioekin. Aurrekontuak 2.025 milioi euroko inbertsioa aurreikusten du, aurreko urtean baino 225 milioi gehiago. Era berean, bereziki azpimarratu dute I+Gko inbertsioa, 701 milioi euro guztira, batez ere Europar Batasuneko trantsizio berde eta digitalarekin lotutako inbertsioak. Hala ere, gauza bat da aurrekontu-proiektuan agertzen dena, eta beste bat, oso desberdina, gauzatzen dena. Urrian (eskuragarri dagoen azken datua), inbertsio errealean %63,6 baino ez zen gauzatu 2023rako aurrekontuan jasotakoaren gainean. Agerraldi batzuetan, Azpiazuk berak onartu du inbertsioen %20 inguru gauzatu gabe geratzen direla. Eusko Jaurlaritzak badaki ezinezkoa dela inbertsio guztiak ekitaldi bakar batean egitea, eta, beraz, amaitzen ez direnak zuzenean igarotzen dira datorren urteko aurrekontura.

Langile-gastuari dagokionez, azken urteetan ohikoa izan da Eusko Jaurlaritzak langile publikoen soldatak Espainiako Estatuko Gobernuak bezalaxe eguneratzea. Hasiera batean, 2024rako ere, soldatak %2 igoko dira (KPIak urtea %4 inguruan amaituko duela aurreikusten denean). Hala ere, Pedro Sanchezen inbestidura ahalbidetzeko EAJK eta PSOEK lortutako itunak langile publikoen soldatak eguneratzea ekar dezake.

Itun horretan, Espainiako Estatuak konpromisoa hartuko luke Ekonomia Itunaren eta Hitzarmen Ekonomikoaren batzorde mistoaren barruan hitzartzeko bai funtzionarioen soldata-igoerak, bai EAerako eta Nafarroarako birjarpen-tasak. Azken urteetan, Eusko Jaurlaritzak argudiatu zuen ezinezkoa zitzaiola soldatak Espainiako Estatuak egiten zuenaren gainetik igotzea. 2024ko urtarriaren 1etik aurrera ez du aitzakia hori izango, eta soldatak Estatukoak baino gehiago igotzeko aukera izango du. Beste kontu bat da borondatea izango duen ala ez.

Errealitatea da zerbitzu publikoetako langileek eros-ahalmenaren %10a galdu dutela 2021etik 2023ra bitartean.

4.3. Osasun-arazoei aurre egiten ez dien aurrekontua

Osasun Sailak 4.896 milioi euroko aurrekontua izango du 2024rako, hau da, 2023ko itxiera-aurreikuspena baino 89,7 milioi euro gehiago. Azpiazuk 246 milioiko hazkundeaz hitz egiten duenean (edo termino erlatiboetan %5,6 ingurukoaz), aurreko urteko aurrekontuarekin alderatzen du. Aurten gastatzea aurreikusita dagoenarekin alderatuz gero, Osasun Sailaren aurrekontua %1,87 baino ez da handitu.



Lehen ikusi dugun bezala, Osakidetza lehendik zeuden eta pandemiarekin larriagotu diren egiturazko arazoak jasaten jarraitzen du. Lehen mailako arretaren egoera oso kezagarria da: erabiltzaileek ez dute kalitatezko arretarik jasotzen, telefono-hitzorduei lehenasuna ematen diete aurreko arretaren gainetik, edo itxaron-zerrenda luzeak izaten dituzte arreta jaso ahal izateko. Horri gehitu behar zaizkio Osakidetzan aldi baterako kontratua duten langileen ratio handia (ia bi pertsonatik bat), lan-karga handitzea langileak murrizten ari diren bitartean, edo zerbitzuaren kalitateari kalte egiten dioten kontratu mistoen eskaintza. Osakidetzaren esanetan, erakunde publikoak dituen arazo guztien jatorria maila guztietako profesionalen falta da, bereziki fakultatiboena, baina baita erizainena ere. ELAk urteak daramatza salatzen benetako arazoak eskaintzen diren lan-baldintzekin duela zerikusia.

Sailaren aurrekontu osotik, Osakidetzari %80 dagokio, 3.936 milioi guztira. Osakidetzan egiturazko arazoei aurre egiteko aurrekontua handituko dela iragartzen ari diren arren, kopuru hori 2023ko itxiera-aurreikuspena baino 15 milioi handiagoa baino ez da. Osakidetzako langileen gastuari dagokionez, igoera 29 milioi eurokoa da soilik, %1,1ekoa.

Osakidetzaren prekaritatearen erakusgarri da 2024rako langile-gastuen aurrekontua. Bertan, aldi baterako langileek guztizko gastuan duten pisua %46 da funtzionarioen kasuan eta %42 lan-kontratuko langileen kasuan.

Baliabide falta hori agerikoa da Osasun Sailak BPGaren gainean duen pisua aztertzean. Osasun-gastua BPGaren %5,13 izatea espero da, 2023ko itxiera-aurreikuspena (%5,29) baino balio txikiagoa eta 2021eko eta 2022ko balioa (%5,62 eta %5,55, hurrenez hurren) baino txikiagoa. Osasunaren egiturazko-arazoak gorabehera, osasun-arloko gastu publikoaren ahalegina duela 10 urtekoaren oso antzekoa da oraindik, non %5etik gorakoa zen.

Osasun sailaren aurrekontua eta BPGren gaineko pisua (%)



Osakidetzako aldi baterako langileentzako zuzkiduraren %

Funtzionarioak

%46

Laboralak

%42

Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda EAEko Ekonomia eta Ogasun sailetik


4.4. Lege berria, baina hezkuntzarako baliabide berberak

Sektore publikoko protestek eta grebek berezko errealitatea dute hezkuntzan. Gainera, aurrekontu hauek une berezi batean egiten dira, ustez 2024an jarriko baita indarrean hezkuntza-lege berria. Lege horrek, ustez, funtsezko aldatetak ekarriko ditu, baina aurrekontu kontinuista baten esparruan onartuko da, eta horrek asko esaten du lege berriaz.

Hezkuntza Saila bigarren garrantzitsuena da, 3.672 milioi euroko guztizko zenbatekoarekin, 2023ko itxiera-aurreikuspena baino 130 milioi gehiago. Hori kontuan hartuta, aurrekontuaren igoera %3,7koa baino ez da, eta ez, Eusko Jaurlaritzak dioen bezala, %5,5koa.

Zuzkidura handitu den arren, BPGarekiko pisua legegintzaldi osoko txikiena da, %3,85. Urteen arteko aldaketa horiek, ordea, ez dute aldatzen azken hamarkadako joera; izan ere, Hezkuntza Sailak BPGaren gainean izan duen pisua %4tik gertu edo behera mugitu da beti, eta Europako beste herrialde batzuetatik oso azpitik daude.

Hezkuntza sailaren aurrekontua eta BPGren gaineko pisua (%)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda EAEko Ekonomia eta Ogasun sailetik

4.5. Osasunean eta hezkuntzan egindako inbertsio eskasa, EBrekin alderatuta


Eusko Jaurlaritzak askotan nabarmentzen du EAEko osasun- eta hezkuntza-sisteman egiten duen inbertsioa. Baina beharrezkoa da aurrekontu horiek perspektiban jartzea, aurrekontuaren bi partida nagusietara (aurrekontu osoaren %60 inguru) bideratzen dena asko den edo gutxi den jakiteko. Horretarako, Europar Batasuneko beste herrialde batzuekin konparatzea ariketa ona da. Eurostaten 2021. urteko azken datuetan oinarrituta, EAEko osasun-gastua azken postuetan egongo litzateke, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala. BPGaren %5,62ko osasun-gastuarekin (2021ean), Europako batez bestekoa (%8) baino %2,38 beherago egongo litzateke.

Europako batez bestekoarekiko bi puntu baino gehiagoko alde horrek 2024ko aurrekontua 2.272 milioi euro handitzea ekarriko luke, eta horrek %46 handituko luke Osasun Sailaren aurrekontua. Ehuneko hori Europako beste herrialde batzuekin alderatzen badugu, aldea askoz handiagoa izango litzateke. Adibidez, Alemaniarekin edo Frantziarekin alderatuz gero, 2.845 eta 3.418 milioi euro gehiago gastatu beharko lirateke, hurrenez hurren.

Hezkuntzari dagokionez, ondorioak berdinak dira. 2021ean, hezkuntzak BPGarekiko duen pisua %4,1ekoa izan zen EAEn, eta Europako batez bestekoa, berriz, %4,8koa. Grezia, Italia, Errumania eta Irlanda bakarrik egon ziren EAEn azpitik.

Europako batez bestekoarekin berdintzeko 636 milioi euro gehiago bideratu beharko lirateke Hezkuntzara, 2023rako aurreikusitakoa baino %17 gehiago. Ikus dezakegunez, bi aurrekontu-partida nagusiak gutxietsita daude inguruko beste herrialde batzuekin alderatuz gero; izan ere, aurrekontuaren bi partida nagusiak Europako batez bestekoarekin berdinduz gero, aurrekontua 2.908 milioi euro baino gehiago handitu beharko litzateke.

Europako herrialdeek osasunean eta hezkuntzan BPGren gainean egindako gastuaren alderaketa (2021)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda EAEko Ekonomia eta Ogasun sailetik

4.6. Etxebizitzarako inbertsio eskasa


2024rako, 210 milioi euroko aurrekontua aurreikusi da etxebizitza sailean. Horrek esan nahi du 48 milioi euro gutxiago izango direla 2023ko itxiera-aurreikuspenarekin alderatuta. Hala ere, kontuan izan behar da aurrekontua eguneratzen joan dela 2023an, eta itxiera iaz aurreikusitakoa baino askoz handiagoa izango dela, 186 milioi euro, hain zuzen ere. Aldaketa horiek Europako funtsetako eraikinak birgaitzeko laguntzekin dute zerikusia, eta ez Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren arloan duen aurrekontu-politika aldatzearekin.

ELAk urteak daramatza etxebizitza duin bat lortzeko arazo larriak dituzten biztanleen gero eta gehiagok dituzten arazoak salatzen, eta, beraz, 2024rako zuzkidura etxebizitza izateko eskubide subjektiboa bermatzeko beharrezkoa litzatekeena baino askoz txikiagoa da, EAEko Etxebizitza Legeak jasotzen duen bezala. Etxebizitzaren zuzkidurak BPGarekiko duen pisua aztertuz gero, %0,22koa da. Etxebizitzaren gastua Europako batez bestekoarekin (%0,6) berdinduko balitz, 573 milioi iraino handitu beharko litzateke partida.

Hala ere, etxebizitzaren arazoa ELArentzat funtsezkoa da eta, horregatik, etxebizitza-politikaren zuzkidura pixkanaka handitzea aldarrikatzen ari gara, BPGren % 2ra iritsi arte, 1.900 milioi euro inguru, horrela etxebizitza izateko eskubide subjektiboa bermatzeko.

Etxebizitza-aurrekontua eta BPGrekiko pisua (%)

16. or.





Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda EAEko Ekonomia eta Ogasun sailetik

4.7. Betikotu egiten dira gizarte-prestazioen murrizketak

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak (DSBE), baliabiderik gabeko pertsonen laguntzeko prestazio nagusiak, 382 milioi euroko zuzkidura izango du 2024an, aurreko urteko proiektuaren 312 milioien aldean (ez dago itxiera aurreikuspenaren daturik). Gogoratu behar da iaz DSBEaren legearen erreforma onartu zela, eta 2023rako zenbatekoa %8,5 eguneratu zela. 2024rako, %5eko igoera ezarri da. Gainera, Espainiako Gobernuak 200 milioi euro transferitu ditu Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren (BGDS) partidaren bidez, eta horietatik 180 milioi sartu dira aurrekontuan, DSBE Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin finantzatzeko.

Horrek esan nahi du bermatutako gehieneko errentaren oinarritzko zenbatekoa 533,52 eurotik 560,45 eurora igoko dela. Oinarri horrekin, pertsona bakar batentzat bermatutako diru-sarrerak hileko 800,28 eurotik 840,29 eurora igaroko dira. Pentsiodun bat 1.013,69 euroko diru-sarrera bermatuetatik 1.064,37 eurora igaroko da. Beraz, DSBEaren lege berriak ezartzen ari ziren murrizketak betikotzen ditu. DSBE gutxieneko soldatari lotzen zitzaion (LGSaren %88 DSBE orokorrerako eta LGSaren %100 pentsiodunen DSBERako). Bada, zenbateko horiek 2008ko Legeak ezartzen zituenekin alderatzen baditugu, oso azpitik daude.

DSBEaren zenbatekoa 2024rako eta 2008ko Legearen alderatzea. Bakarrik bizi diren pertsonak.

	Aurrekontua 2024	2008ko legea	Murrizketa
 DSBE orokorra	840,29€	1.108,8€	268,51€
 DSBE pentsionistak	1.064,37€	1.260€	195,63€

Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda EAEko Ekonomia eta Ogasun sailetik

Alokairuko etxebizitzara bideratutako prestazio ekonomikoei dagokienez, izozte orokorra dago. Alokairuen prezioek etengabe gora egin badute ere azken urteetan, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO), Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Ekonomikoa eta Gaztelagun gazteen emantzipaziorako laguntza 300 eurotan mantendu dira. Gogoratu behar da EPOak 320 euroko zenbatekoa zuela hilean 2010. urtean, egungo balioaren gainetik. Laguntza horiek ez dira nahikoak merkatuan alokairua ordaintzeko.


Gizarte Larrialdietarako Laguntzei (GLL) dagokienez, 41,5 milioi euroko zuzkidurari eutsi zaio, azken urteetako berbera. Laguntza horri dagokionez, gogoratu behar da ez dakarrela eskubiderik, eta aurrekontu-zuzkidura agortzen denean, hartzaileek prestazio hori jasotzeari uzten diote.

4.8. Zorra eta zor bizia

Zorra ordaintzeko partidak garrantzi handia izaten jarraitzen du aurrekontuan. 861 milioi euroko aurrekontua egin da zorra ordaintzeko 2024an, hau da, aurrekontuaren %5,8 (AHTrik gabe). Horrela, zorraren ordainketa 112 milioi murriztuko da 2023ko itxiera-aurreikuspenarekin alderatuta. Horrek esan nahi du %11,5eko jaitsiera izan dela. Zenbateko horretatik, 632 milioi zorraren amortizazioari dagozkio, eta 229 milioi, berriz, interesak ordaintzeko. Zenbateko hori %17,5 igo da 2023tik, eta %73,8 2022tik.

Eusko Jurlaritzaren zor biziari dagokionez, ikus dezakegu zor biziak pixka bat gora egin zuela prezio korronteetan 2024an. 2023an 78 milioi murriztea espero da, 10.271 milioira iritsiz, hau da, BPGaren %11,3ra. Hala ere, 2024rako, zor bizia 10.476 milioi eurora igotzea espero da, hau da, 205,5 milioi euro gehiago. Egia da ratioa eta BPG zertxobait murriztuko direla, BPG nominalaren igoera handiagoa izango baita.

Zor biziaren eta ratioaren grafikoa



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda EAEko Ekonomia eta Ogasun sailetik

4.9. BEM funtsek ez dute aldaketa esanguratsurik eragiten

Europako funtsek, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren (BEM) bidez, ez dute izango esaten zuten pisua 2024rako. Guztira 341 milioi euro izango dira, hau da, aurrekontu osoaren %2.

Funts horiek Europako industria-ehuna eraldatuko zutela espero zen, ekonomiaren ustezko trantsizio berde eta digital baterantz. Oraingoz, eta 2024rako aurrekontuaz ari gara, jasotako dirua ez da nahikoa izan eta, gainera, ezer gutxi bideratu da diseinatuta zeuden helburuetara. Gutxienez, aurrekontuaren bidez. Eta gogoratu behar da 2021etik 2026ra bitartean erabiltzeko aurreikusita zeudela eta, beraz, ez da hainbeste denbora geratzen.

2024rako BEMren partida osoaren erdia baino gehiago Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarentzat da, guztira 180,8 milioi euro. Kopuru horretatik 147 milioi familientzako eta enpresentzako eraikinak eta etxebizitzak energia-eraginkortasunean birgaitzeko dira. Hau da, BEM funtsen %43 partikularrek kudeatuko dituzte.

Hezkuntza da funts horiekin diru gehien duen sailtako beste bat, 83 milioi guztira, batez ere Espainiako Estatuko Gaitasun Digitalen Plan Nazionalaren barruan informazio-prozesuetarako ekipoak erosteko (31 milioi) erabiliko dira.

Deigarria da Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak duen zuzkidura eskasa. Hasiera batean, eta BEM funtsen asmoa ikusita, funts horiek gehien eskuratu beharko litzuzkeen sailtako bat izan beharko litzateke. Hala ere, hori ez da horrela izan urte bakar batean ere. Azken urteotan EAEk pisu industrialak galtzen ari dela kontuan hartuta, egoera hori irauliko duen politika industrialak beharrezkoa da. Funts hauek horretarako aukera bat ziren.

ELAn urteak daramatzagu esaten funts horiek doikuntza-politiken baldintzapean zeudela eta ez zirela nahikoak (aurrekontuan duten pisuan ikusi dugun bezala) eta administrazio publikoek ez zutela horiek bideratzeko gaitasunik izango. Ezintasun hori dela eta, sektore pribatuaren esku uzten da kudeaketa, aurrekontuaren barneko funtsekin gertatzen den bezala.

4.10. Ez dago norabide aldaketarik larrialdi klimatikoari dagokionez

Eusko Jurlaritzaren aurrekontuek ez dute larrialdi klimatikoak eta trantsizio ekosozialak eskatzen duten norabide aldaketarik egiten.

Ingurumen babesari dagokionez, airearen kalitatea kontrolatzeko sarera 540.000 euro soilik zuzentzen dira. EAEn dugun BEG emisio kopuru handia eta murrizketa beharra ikusita, klima aldaketari aurre egiteko ez da nahikoa. Adierazgarriak dira baita ere ingurumen ikuskaritzari zuzentzen zaizkion 15.000 euroak, sail hau baita ingurumenarekin loturiko arau hausteak kontrolatu behar dituen. Inbertsio honekin argi geratzen da Eusko Jurlaritzari askotan leporatu zaion kontrol falta errealitate bat dela.

Energia berriztagarrien arloan, EVEren aurrekontuak begiratzuz, energia garbia ekoizteko instalazioak eraikitzeo inbertsioa enpresei eta norbanakoei zuzendutako dirulaguntzetara mugatzen dela ondorioztatzen da. Ez dago ekoizpen publikoa bultzatzeko aurrekonturik. Trantsizio energetiko justu bat izateko sistemaren publikotasuna eta energia eskubide gisa bermatzea ezinbestekoak dira, eta aurrekontu hauek sektore pribatua laguntzeko bokazioa dute, ez herritarren beharrak asetzeko. Aipatzekoa da SHESA enpresa publikoa oraindik ere desegin ez izana eta aurrekontuetan 5,5 milioi euro jasotzea. SHESA hidrokarburoen ekoizpena bultzatzeko enpresa da eta aurrekontuaren zati handiena, 4,15 milioi euro, gasa explotatzeko kontzesioetan inbertitzen du. Trantsizio energetikoa benetan egin nahi bada, energia fosiletan ezin da inbertsiorik egin.

Trantsizio ekosozialari dagokionez, ELAren aldarrikapen nagusietako bat ekonomiaren birkokapena da, eta honetan ere ez dago aurrerapausurik, guztiz kontrakoa bultzatzen du aurrekontuak. SPRik nazioartekotzeko ekintzetara 29 milioi euro bideratuko ditu, ekonomiaren birkokapenarekin zerikusia duen partidarik ordea ez da existitzen. Egungo egoera irauli eta trantsizio justu bat aurrera eramateko, 29 milioi euro hauek ekonomia birkokatzeko erabili behar dira.

4.11. Laneko segurtasun eta osasunak lehentasun izan gabe jarraitzen du

Laneko segurtasun eta osasunaren arloko legeria betetzea ez da, oraindik ere, Eusko Jurlaritzaren ekintzaren lehentasuna. Beste behin ere, Osalan Erakundeak oso aurrekontu-zuzkidura txikia jaso du (18,2 milioi euro baino ez). Aurrekontu eskasa ikusita, ez da harritzekoa azalpenmemorian, interes gutxiko edo batere interesik gabeko datuz beteta egotea, edota funtsezko informaziorik ez egotea, adibidez ikertzen ari diren enpresen kopurua. ELAk Osalanera eta lan-ikuskaritzara bideratutako baliabideen hazkunde handia eskatzen du, eta kontu hori ere ez da jorratzen 2024ko aurrekontuan.

Laneko segurtasunean egindako inbertsioa ez da oso esanguratsua, Eusko Jaurlaritzak 2024an beste gai batzuekin bideratuko duen aurrekontuarekin alderatzen badugu. Adibidez, Osalanentzat 18,2 milioiko aurrekontua duen Sail berak 115,8 milioi euro islatzen ditu enpresei enplegua sustatzeko eta sortzeko neurriengatik aplikatzen zaizkien Gizarte Segurantzako kuoten hobarietarako. Mundu guztiak onartzen du neurri horiek enpresen onurak handitzeko baino ez dutela balio, eta ez diote inolako ekarpenik egiten kalitatezko enplegua sortzeari.

4.12. Beste gai batzuk

Eusko Jaurlaritzaren 2024rako aurrekontu-proiektuak gutxienez bi dirulaguntza jasotzen ditu Gipuzkoako Adegri patronalaren Fabrika Fundazioarentzat. Fundazio honen helburua Fundazioaren webgunean "konfiantzan oinarritutako proiektu partekatu" gisa definitzen den Enpresa Kultura Berria deritzona bultzatzea da, "enpresa trainerutzat hartzen baitugu, denok batera norabide berean arraun eginez". Oso deigarria eta larria da Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak Fundazio honek lau eguneko lanaldia aztertzeke proiektu pilotua bultzatu nahi izatea. Proiektu horretarako 6,5 milioi euroko aurrekontua dago 3 urtetan (2,5 milioi 2024an). Fundazio horri beste 200.000 euro esleitu zaizkio "kalitatezko enplegua sustatzeko lan egingo duen enpresa-kultura berritzaile eta kolaboratiboa sustatzeko". ELAk salatzen du hori guztia diru publikoa patronalaren interes pribatuen alde egitea baino ez dela.

Bestalde, erakunde sindikalen finantzaketari dagokionez, Osalanen edo Lanbideren gisako esparruetan erakundeen parte-hartzearekin lotutako finantzaketaren zatia neurritz kanpo handitzen ari den praktika baten aurrean gaude. Atzeko aldetik egindako finantzaketa horren adibide batzuk hauek dira: 331.000 euro sindikatuei, Osalanen Kontseiluan eta Batzordeetan parte hartzeagatik; 360.000 euro, Lanbideren Kontseiluan parte hartzeagatik; eta 211.000 euro, prestakuntza-premiak aztertzeke eta hautemateko Aholku Batzordean parte hartzeagatik. Hiru partida horiek 900.000 euro baino gehiago dira guztira.

5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Sarreran adierazi dugun bezala, aurrekontu horiek zerbitzu publikoen kalitatearen aldeko mobilizazio sozialaren (azaroaren 30eko Greba Orokorra zaintzarako eskubide kolektiboaren aldekoa, osasun publikoaren aldeko mugimendua, hezkuntza-legearen aurkakoa eta etxebizitza-eskubi-dearen aldekoa) eta sektore publikoko greben egoera batean aurkezten dira, langile publikoen lan-baldintzak hobetzeko eta zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko gertatzen ari den desegite sistematikoaren aurrean. Bada, arazo horiei aurre egin eta herritarren gehiengoaren eskaerei erantzun beharrean, Eusko Jaurlaritzak aurreko urteetako ildo berari jarraitzen dio.

Datuen bidez egiaztatu eta kontrastatu ahal izan dugunez, aurrekontu hauetan ez da aldaketarik sumatu, nahiz eta oraingo legegintzaldiko azken aurrekontuak izan. Bi sail nagusien (osasuna eta hezkuntza) egiturazko arazoak gorabehera, ez da ahalegin gehigarririk ikusten 2024rako.

Beharrezkoa da adieraztea eta salatzea Eusko Jaurlaritzak uko egiten diola gainerako talde politikoeekin negoziatzeari. Azpiazu sailburuak onartu zuen zuzenketa eta proposamenetarako 25 milioi negoziatzeko baino ez zeudela prest, gogora dezagun aurrekontua 15.025 milioi euro denean, hau da, horrek esan nahi du aurrekontu osoaren %0,17 bakarrik negoziatzeko prest zeudela. Azpiazuk zioen datorren urtean hauteskundeak egongo balira zaila izango litzatekeela oposizioko alderdiekin aurrekontu hauetarako babesa aurkitzea. Dirudienez, Azpiazuk berak distantziak ezarri nahi izan ditu 25 milioi euroko kopuru txikia eskainiz eta albo batean itxiz. Hala ere, EH Bildurena bezalako proposamenek (360 milioi euro, aurrekontuaren %2,3) ez lukete funtsezko aldaketarik ekarriko.

ELAk, azken urteetan aldarrikatu dugunaren ildotik, honako gai hauek eskatzen ditu aurrekontu-politika aldatzeko eta gehiago sozialen beharrei erantzuteko:

Premiazko erreforma fiskala eta iruzur fiskalaren aurkako borroka

EAEko presio fiskala Europar Batasuneko batez-bestekoa baino askoz txikiagoa da. ELAk fiskalitateari buruz egindako txostenetan argi geratzen denez, hori soldataz kanpoko errentetan dagoen iruzur fiskalagatik eta errenta handiek, enpresek eta kapitalak ordaintzen dituzten zergak azken hamarkadetan onartutako zerga-erreformetan murriztu direlako gertatu da. Presio fiskala Europako batez bestekoarekin parekatzeko, urtean biltzen direnak baino 5.500 milioi gehiago bildu beharko lirateke.

Horregatik, zergen egiturak goitik behera berrikusi eta aldatu behar dira, enpresen eta errenta handien interesak babesteko diseinatuta baitaude. Ez da gizarte-justiziarik egongo bidezko zerga-sistemarik gabe, hau da, justizia fiskala aberastasunaren birbanaketatik eta zerbitzu publikoak bermatzeko diru-bilketa nahikotik abiatuta. Horregatik, EJren zor horren ordainketari aurre egin ahal izateko, etorkizunean murrizketarik aplikatu gabe, beharrezkoa da erreforma fiskala egitea. Erreforma horretan hainbat gai jorratu behar dira, eta ELAk neurri zehatzak proposatu zituen diru-sarrera publikoak handitzeko. Besteak beste:

- PFEZ progresiboagoa. Zerga-tasak igotzea eta eskala aldatzea, gehieneko tasa marjinala %60ra eramanez; kapitalaren tarifa espezifiko kentzea. BGAEaren eta pentsio-planen zerga-ordainketa aldatzea.
- Sozietateen gaineko zerga: mozkinen gaineko %25eko gutxieneko tasa efektiboa ezartzea, kenkariak eta pizgarriak ezabatzea.
- Ondarearen, aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga. Berariazko errekaratu bat ezartzea, progresiboa eta %1 eta %10 artekoa.
- Iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko zuzkidura handitzea

Osasuneko inbertsio publikoa Europako batez bestekoarekin parekatzea

Adierazi dugun bezala, Eusko Jaurlaritzak Osasunean duen aurrekontu-defizita (BPGren %5,6) Europar Batasuneko batez bestekoarekin alderatuta (%8) oso handia da. Osasuneko aurrekontua %2,4 handitu beharko litzateke BPGarekiko datorren urtean, hau da, 2.272 milioi euro.

Hezkuntzako inbertsio publikoa Europako batez bestekoarekin parekatzea

Osasunean gertatzen den bezala, Hezkuntzako inbertsio publikoaren defizita handia da Europako batez bestekoaren aldean. Zehazki, aurrekontua 2024rako aurreikusitakoa baino %17 gehiago handitu beharko litzateke, hau da, 636 milioi euroko igoera 2024ko aurrekontu-proiektuak aurkeztu dituen kopuruekin alderatuta.

Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko aurrekontua handitzea

ELAk etxebizitzari buruz egindako proposamenek atal honetako aurrekontuak BPGren %2raino hornitzeko beharra planteatzen dute, egungo % 0,22aren aldean. Horrek aurrekontua gutxienez 1.900 milioi eurotan handitzea ekarriko luke.

Merezi duen bizitza izateko aukera ematen duten diru-sarrera bermatuak izatea

Lehenengo neurria EAEn DSBEaren zenbatekoan azken urteetan aplikatutako murrizketetan atzera egitea izan behar da. Behar dituzten pertsona guztientzat diru-sarrera duinak izatea justizia sozialeko elementu bat da, eta, gainera, prekarietate handieneko eta soldata baxuko egoerak saihestuko litzuzke.

Trantsizio ekosozialerako funts publikoa

Eusko Jaurlaritzaren industria-politika enpresa handien interesei lotuta dago, baita klima-krisian erantzukizun handiena dutenei ere. Bidezko trantsizio ekosozialak gehiago sozialaren interesak lehenestea eskatzen du, Petronor, Iberdrola edo lobby automobilistikoa bezalako enpresen interesen aurretik. Horregatik, ELAk trantsizio ekosozialerako funts publiko bat sortzeko beharra defendatzen du, 2.300 milioi eurokoa.

Aurrekontua genero-ikuspegiarekin aztertzea

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan ez dago gutxieneko genero-ikuspegi egokia duen azterketarik. ELAk eskatzen du 2024an ikuspegi horretatik azterketa zorrotza egin dadila, gizartearen parte-hartzearekin, eta Jaurlaritzak konpromisoa har dezala azterketa horren ondoriozko aurrekontu-beharrei erantzuteko.

Eusko Jaurlaritzako langileen lan-baldintzak gure lurraldean adostea

Euskal administrazio publikoko langileen lan-baldintzak gure lurraldean erabaki eta adostu behar dira. Horretarako, euskal sektore publikoaren negoziazio kolektiboko mahaien emaitza errespetatzeko konpromiso politikoa eta mahai horietan akordioak lortzeko borondate politikoa egon behar dira.